

Esan bear det baita ere, neri iñoiz galdetu didatenean: Aizu, berriz jaioko baziñake zer karrera artuko zenduke? Nik beti erantzun det: Maistren karrera. Milla bider jaioko ba'nintzake ere.

*Madaleine Jauregiberri*

Orain direla egun ta berrogeta hamar bat urthe, Lucien Bonaparte printzia jin zen Baiunara. Europako beste mintzai-re haborosiak ixtudiatu zutian, euskara ere nahi zian ikhasi. Erran zeyen, 7 mintzakietan, xiberotarra zela hobekienik kontserbaturik zena, bena zinez estonatu zen, jakin zialarik, zertaz bibliotekarik libururik ere etzela debozionezko ele batez kanpo.

Aholkatu zien, juan ledin inchauspe kalunjiaren ikhustera, xiberotarra zela eta gizon zinez sabant jakintsia.

Harek ere, erran zeyon, etzela orako xiberotarra izkiribualat igaran. Bena nola konserbi eta begiratu duzie galdegin zeyon Inchausperi eta hunek arrapostu:

Goguan konserbi eta elhestaz begiratu. Bi sabantek deliberatu zien xiberotar aditzaren izkiribuz ezartia, batak ba zian jakitatia bere goguan, bestiak aldiz, ezagutzen mintzai-zen technique delakua. Lanak ukhen zutien xiberotar aditzaren sar-arazteko beste mintzai-zen aditzen kadretan, eta borts ehun bat paia bethe zutien tink-tink eta orano erraiten zian Inchauspek etzutiala untsa ikhertu bere gogoko sokhuak oro.

Lan izigarri hori erori zeyon eskietara ene anaie bati. Etzen sekulan euskarari interesatu, matematikak maite zutian gizon bat zen.

Ostokatu zian eta salhe estonaturik baratu, lehentze izkiribaturik ikhusten zutian hitzak enthelegatzen zutian ahoz erraiten bazutian. Irakurri zian aitzin solasian ere Inchauspek erraiten ziala euskarak jerraikitzen zutiala mintzai-riaren lege naturalak, bega lege huak etzutian aiphatzen baizik. Problemen artian kostumaturik eta laket beitzen üdüritu zeyon ba zela hor bat argitzeko eta ediren zian elkhi-bide bat zuiñi eman beitzon izena: mecanisme de la conjugacion du verbe

souletin. Erreusitu du edireitia kadre eli bat zuiñtan lerrokatzen baitira xiberutar aditzaren hitzak oro ordrian.

Berexkunderik gabe etzian ene anaiak lan hori egin ahal izanen, ezpalu ukhen bistaren aintzinian Inchauspek egin lan izigarria.

Harekin egintüt lehentze ezagutziak xiberotar aditzarekin, orain direla 15 urthe. Ezarri düüt ene anaiak atxeman khortxeletan xiberotar aditzaren hitzak oro, lerrokatzen dira ordrian legeen berexkunderik, gabe. Ba nakian bethi entzunik euskara zinez aberats den mintzaire bat dela, anaie zenarekin dut konprenitu haren amiragarrizko aditza zorigaitzez xiberotarrek eztakie.

Azkenik eman die Atharratzen besta bat 80 urthiak bethe-rik zutien maskarada phastoral jokalaria ohier. Ukhen dut okasionia erraiteko xiberotar saldo bati zer profesur sabantak diren etxeukuak beren etxetan. Aski zaye xingleki mintzazia, xingleki! Hitz hori lehentze entzun dut erraiten Zunharren, Jundane Phetiri egun batez mezatik elkhitian. Erran nian emazte eli baten aintzinian, egia beitzen, : zer pherediku ederra entzun dugun. Bai ihardetsi zeitan emazte batek, gure jaun erretora xingleki mintzo zikuzu, guk konpreni gisa. Eneyon arraposturik eman, enundian sinhetsiko erran baneyon etzirela katedraletan, pheredikariak hobeki mintzatzen.

Erran nien ere ene xiberotar behazaler, nahi izan bazunie jin nendin phastoralzale behar nündükezien denboratan khumitatu, hala mintzo zideya ziren artian. Bai bai ihardetsi zeitaden badakizieya zer emaiten diren hitz horiek frantzesialat ütülirik? si vous eussiez voulu que je vinisse à la pastorale et aurait fallir que vous m'invitassiez ò tempes.

Eztira Parisen frantsez profesur sabantak hobeki mintzatzen beren etxetan, etxeukuak dira profesur sabantak.

12-13 urthiak bethe orduko xiberotar haur hanitxek, ez maleruski ororek, badakie sabanki, uneski, elhe ekherrik gabe, elhestan.

Aphezek elizan errejentek eskolan laguntzen batie haurrak, etxetik kanpora direlarik, esperantza ukheiten ahal du xiberuak, aitzina ere jerraikiko diala bethiko bide xuxena —erranik izan ahal dadin geruan ere— bethi aintzina xuxen xuxena dabila euskalduna.